

Merkatuaren segmentazioa (Baserri eskola)

Baserrri eskolaren negozio ideia aurrera atera ahal izateko eta baserrri eskolak era egoki batean funtzionatzeko, garrantzi handikoa da ze nolako merkatuari erantzungo diogun jakitea. Azken batean, bezeroak edozein negozio-ereduren muina dira, izan ere, ez baita haiek gabe denbora luzez iraungo duen enpresarik.

Nahiz eta XXI. mendean egon, pertsonen heziketa emateko metodologia XIX. mendean ematen zen metodologian oinarrituta dagoela konturatu egin gara. Beraz, arlo honetan hobekuntza handiak egin behar diren beharra ikusi egin dugu. Hori kontuan izanda, gure zerbitzuak Pikler eta Montessori ideologietan oinarritutako hezkuntza berri bat aldarrikatzearen aldekoa da. Beraz, gure gaur egungo gizartean aurkitzen den merkatu masiboari erantzun bat emateko joera hartu egin dugu. Hau da, gure baserrri eskolara hurbildu egingo diren bezero gehienak seme-alabak dituzten gurasoak izango litzateke.

Azken batean, hezkuntza haurren oinarritzko eskubide bat bezala ulertzen dugu eta haurra modu integralean prestatu nahi dugu: hazkunde fisikoan, sozialan, emozionalean eta kognitiboan. Haurrari ikastun independente izaten laguntzeaz gain, irakasle edota hezitzaileek taldeko parte-hartzea, lankidetzeta eta besteen duintasunarekiko errespetua sustatu behar ditu. Pertsonak aukera gehiago izan ditzakegu ikasteko zuzeneko harremana, praktika eta aurkikuntzak biziz, jarraibideak jarraituz baino. Laburbilduz, gure baserrri eskola honetan haurra bere ikasketa prozesuaren protagonista izango da eta ikastetxe askotan ematen den curriculumaren pautak haurraren interesen arabera moldatu egingo ditugu. Haurrak berak markatuko ditu gaitasunak garatzeko denbora tarte hori.

Metodologia honetan, helduaren paperak ere garrantzi handia duela esan daiteke. Helduak rol desberdina hartu behar du haurrarekin duen harremanean, eta haren jarduna zuzeneko behaketan, hitzezko komunikazioan, afektuan eta zeharkako estimulazioan lagunduko du. Helduak haurraren mugimenduetan esku hartzea kaltegarria izan daiteke haurraren garapen autonomorako. Hori dela eta, haurra ez da presaka sartu behar, pazientziaz jokatu behar da, eta jarduteko modu berri hori bide nagusira eraman behar da haurra aske senti dadin, eta helduarekin lotura bat sortzen hasi behar da, modu horretan, modu espontaneoan jardun ahal izateko.

Baseri eskola honetan, haurren hezkuntza prozesuari garrantzia emateaz gain, aurretik komentatu egin dugun moduan, helduaren paperak ere garrantzi handia duela esan daiteke. Gainera, haurrekin esku hartzeaz gain, hezitzaile zein irakasleek helduarekiko orientabide saioak ere eskaintzen dituzte. Saio horietan, helduak haurreko ze nolako komunikazio mota adierazi egin behar duen eta haurren aurrean era egokienean jokatzeko pautak eskaintzen zaie, beti ere helduek nahi izanez gero.